

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ospitaleguneak hartuko ditu bere gain 84 osasun-zentro eta kontsultategiren esterilizazio-lanak 2017an, eta garbiketa-gune berria irekiko du

Dominguez kontseilariak bisitatu du unitatea, 2016an 226.000 material baino gehiago prozesatu eta 16.000 kalitate-kontrol egin zituen

Asteartea, 2017.eko martxoak 14

Nafarroako Ospitaleguneak (B) hartuko ditu bere gain Lehen Mailako Arretako sareko 84 osasun-zentro eta kontsultategiren esterilizazio-lanak, eta garbiketa-gune berria irekiko du; 526.000 euroko inbertsioa egin da gune berri horretarako, eta apirilean amaituko dituzte lanak.

Virgen del Camino Ospitalea zen eraikineko sotoan dago II. Esterilizazio-

unitatea; 2016. urte erdialdean abiarazi zuen Lehen Mailako Arretan erabiltzen diren osasun-tresnen eta -produktuen esterilizazio-lanen ardua hartzeko plana, Nafarroako osasun-sistema publikoan erabiltzen diren material guztiei aplikatzen zaizkien prozesuak homogeneizatzeko eta segurtasun-maila handitzeko helburuz. Orain arteko, osasun-zentroetan egin izan da lan hori, zentro bakoitzeko gailu eta prozesuekin- 2016. urtea amaitzerako, dagoeneko 36 osasun-zentrok eta kontsultategik bideratzen zituzten beren materialak Nafarroako B Ospitaleguneko Esterilizazio-unitatera, eta espero da 2017an 84 zentro izatera iritsiko direla.

Prozesuak homogeneizatzeko eta zentralizatzeko ildo berean, unitate horrek aurreikusten du apirilean amaituko dituztela garbiketa-gune propioa izateko aukera emango dioten lanak. Era horretan, esterilizazio-ziklo osoa (garbiketa eta desinfekzioa, paketatzea eta esterilizazioa) egin ahal izango da gune berean. Gaur egun, garbiketaren zati hori Ebakuntza-gelen eremuan egiten da Nafarroako B Ospitalegunean, eta handik dagoeneko garbituta iristen da materiala II. Esterilizazio-unitatera.

Gela berriak hiru garbigailu termo-desinfektatzaile izango ditu, 541 litroko edukierarekin; laugarren gailu bat jartzeko aurre-instalazioa eginda, etorkizunean sor daitezkeen beharrei erantzun ahal izateko; unitateko orgak, edukiontziak eta tresna mugikorak garbitzeko tunela; ultrasoinu



Dominguez kontseilariak Nafarroako Ospitalegunearen II. Esterilizazio-unitatea bisitatu du.

bidezko ikuzgailua; sakonera handiko garbiketa-upelak; eta materialak lehertzeko aire konprimatzeko terminalak.

Garbiketa- eta desinfekzio-ekipoetara iristen den ura tratatzeko planta bat ere izango du gelak, eta lan horietarako erabiltzen diren produktu kimikoak dosifikatzeko sistema zentralizatu bat; horrela, eskuzko manipulazioa eta isuriekin eta jarioekin lotutako arriskuak saihesten dira. Gailu horiei esker, prozesuak ahalik eta gehien automatizatuko dira; elektronikoki kontrolatuko dira, ukimen-pantaila bidez. Garbiketa-eremuak diseinu aseptikoa du, tratatzen diren materialak eta zerbitzuan lan egiten duten langileak gurutzatzea eta haien atzeranzko urratsak saihesteko pentsatutakoa, kutsadura gurutzatuak saihesteko.

Aurreikuspenen arabera, apirilean jarriko dute martxan garbiketa-gune berria fase pilotuan, eta udan prest egongo da dagoeneko Nafarroako B Ospitaleguneko kirurgia-bloke berriatik iritsiko diren materialak hartzeko. Gaur goizean bisitatu dituzten instalazioak Fernando Dominguez Osasuneko kontseilariak, Antonio Merino Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari kudeatzaileak, Maite Soria Osasun-zainketetako zuzendariak, eta Nieves Gurrutzi Esterilizazio-erizaintza-unitateko buruak.

226.000 osasun-produktu baino gehiago esterilizatzen da urtean, eta 16.000 kalitate-kontrol egiten da

226.000 osasun-material baino gehiago prozesatu zituen 2016an II. Esterilizazio-unitateak, tresna solteak eta ebakuntza mota ezberdinetara bideratutako tresna-edukiontzia kontuan hartuta. Gainera, egindako tratamenduen 16.000 kalitate-kontrol egin zituen. 79.985 euroko gastua izan zuen.

Barruti horretan esterilizatzen den materialaren erdia (106.498 produktu) ebakuntza-geletako tresnak dira; ondoren, ospitaleratze-plantetako produktuak daude (54.117), kanpo-kontsultetako tresnak (52.639) eta zerbitzu guztiei ematen zaizkien ehun-materialak (13.604).

Ospitale Orokorrean eta Amentzako Ospitalean erabiltzen diren materialak esterilizatzen ditu unitate horrek; Nafarroako B Ospitaleguneko 17 ebakuntza-geletakoak (jarduera programatua duten 5 ebakuntza-gela nagusi, larrialdietako bi, haurrentzako beste bi, ginekologiako hiru, Amentzako areako bi ebakuntza-gela orokor, Obstetriziako larrialdietako bat, aurpegi-masailtako ebakuntza txikietarako bat, eta kirurgia plastikoko ebakuntza txikietarako beste bat); lau erditze-gelatakoak; B Ospitaleguneko kontsultetakoak; Vianako Printzea kontsultategiko kanpo-kontsultetakoak; San Martin Doktorea osasun-zentrokoak; eta emakumeen arretarako Ermitagañako eta Hiri-zabalgunea II zentroetakoak. Jarduera horri Lehen Mailako Arretako saretik datozen materialen esterilizazio-lanak gehitu zaizkio berriki.

Nafarroako Ospitaleguneko beste bi esterilizazio-unitate ditu A ospitalegunean (garai bateko Nafarroako Ospitalea) eta D ospitalegunean (Ubarmin Klinika); bien artean, 150.000 produktu prozesatzen dituzten urtean, eta 30.000 kalitate-kontrol egiten.

Hiru unitate horiek material mota ugari esterilizatzen dute: kirurgiako eta mikrokirurgiako tresnak (guraizeak, pintzak, bisturiak, zerrak, azkoinak, torlojuak eta pazienteei protesiak finkatzeko barrak edo konektoreak, besteak beste), ehun-materialak (gero eta material gutxiago iristen da, ebakuntza-geletako arropa eta ehun-gauza gehienak behin erabili eta botatzekoak baitira), eta kontsultetan zein ebakuntzetan erabiltzen diren lenteak, kamerak, kableak eta bateriak gailuen motorrak besteak beste.

Zeregin hori funtsezkoa da osasun-katean ahalik eta segurtasun biologiko handiena bermatzeko; beharrezkoak dira esterilizazio-prozesuaren fase guztien ordena eta kontrol zorrotza egitea eta lan horiek egiten dituzten profesionalak osatzen duten lantaldearen goi-mailako prestakuntza. Lantalde gehienak erizaintzako laguntzaileak osatzen dituzte (Nafarroako Ospitaleguneko hiru esterilizazio-unitateetako bakoitzean, 12-15 profesional, erizaintzako langileen zuzendaritzapean).

Hiru esterilizazio-prozedura

Nafarroako Ospitaleguneko esterilizazio-unitateek hiru esterilizazio-metodo erabiltzen dituzte, mikroorganismo patogenoak kentzera edo inhibitzen bideratutakoak. Lehenengoa eta gehien erabiltzen dena da 135 gradutara dagoen ur-lurrun bidezko esterilizazioa; eraginkorrenzat jotzen da osasun-arloan

beroarekiko erresistenteak diren materialetarako. Beste bi metodoak dira hidrogeno peroxido bidezko esterilizazioa (gas-plasma) eta etileno oxido bidezkoa –gero eta gutxiago erabiltzen da–; teknika horiek tenperatura baxuko esterilizazioko teknika kimikoak dira, tenperaturarekiko sentikorrek diren materialetarako, hala nola osagai elektronikoak dituzten gailuetarako eta plastikozko ontzietarako.

Lanaren antolaketa zorrotzaren eta kontrol-prozesu kimiko, fisiko eta biologiko zorrotzen bitartez lortzen da prozesuen zehaztasuna. Hiru areatan banatzen da garbiketa-gunedun esterilizazio-unitatea: tresnen harrera-, sailkapen-, desmuntatze- eta garbiketa-lanak egiten den eremua; bigarren eremu garbi bat, esterilizazio-prozesua egiten dena; eta hirugarren eremu bat, esterila edo mugatua, gainerako eremuetatik barrera fisiko batez bananduta dagoena; azken eremu horretan egiten dira esterilizatutako materiala deskargatzeko, biltegitratzeko, banatzeko eta zerbitzatzeko jarduerak.

Esterilizazioaz arduratzen diren profesionalak egiten dituzten prozesu ezberdinetara egokitutako arropa erabiltzen dute (maskara, txanoa, eskularruak, galtzak, mantal plastifikatua, begiak babesteko betaurrekoak eta entzumena babesteko kaskoak, besteak beste). Instalazioek mikroorganismoen hedapena eragin dezaketen hauts-pilaketa eta kondentsazioak saihesteko pentsatutako egiturak eta estaldurak dituzte hormetan, sabaietan, erlaitz eta apalategietan.

Helburu horrekin berarekin, aireztapena, tenperatura eta hezetasun erlatiboa kontrolatzeko sistemak dituzte. Eremu esterilak, barrera fisiko bat izateaz gain, presio positiboa ere badu, hauts-partikulak, mikrotantak eta bestelako substantzia kutsatzaileak sartzea saihesteko. Esterilizazio-unitateek desmineralizatutako uraren sistema bat dute, garbigailuetarako zein lurren bidezko esterilizazioko autoklabeentzako erabiltzen dena.